



Erlojua (Arene)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2013ko sari lekiaketa. Lenengo saria

Ariñeketan doa Josefin tren geltokirantza. Senarra meniskotik operatu eben atzo eta gaua ospitalean pasa dau alaba gazteenagaz. Orain alabea etxera etorteko Josefin doa senarragaz egotera. Iñaki, senarra, berbatsua ez danez, Josefiñek ez aspertzeko puntua daroa bertan egiteko. Alaba nagusienak udebarrirako umetxua dakar eta Josefin, bere lenengo illobatxuarentzat, jo ta ke dabil jersetxuak, mantoiak eta abar egiten.

Goizetik eldu da eta trena oraindiño erdi utsik dago. Leio ondoan jesarri da. Asi da jendea etortzen. Ia-ia bagoia beterik dago. Ateak zarratzera joiazala, mutil bat sartu da Josefin dagoan bagoira eta bere ondoan jesarri da. Itxura txarreko mutilla da, punki antzekoa: kresta andi bat daroa -Josefiñek a tente jartzea erreza ezin izan bear dala pentsatzen dago-, belarri banatan iru edo lau belarriko eta, ori gitxi dala, sudurrean eta betule baten beste bana. Goitik bera baltzik jantzita dago. Eskuetan larruzko txamarra zantar bat ikusten jako. Oñetakoak militarrek erabiltzen dabezen lakoak. Josefiñek, bere barrurako diño, ez ete dagoan beste lekurik mutil a jesarreko.

Trena martxan asi da eta Josefin ez doa lasai. Itxurabako mutil a an egoteak urduri jarri dau. Leiotik kanpora baño geiago dabil bere eskumarantz begira, mutilla dagoan lekura, ori bai, disimuloz. Mutilla apur bat mugitzen danerako, an dago Josefin erne. Puntua egiteko tresnen boltsatxoa ere, badaezpada, jesarleku azpian gorde dau. Mutillak ankak luzatu dauzenerako, andreak bere eskuko boltsea bezapean jarri dau. Ez da batere fidatzen.


Ordu erdiko estutasuna daroa aldean Josefiñek tunel batetik pasatzerakoan. Treneko argiak ez dira biztu eta illunetan doa bagoia.


-Asko da, ba! -diño emakumeak- Au da ba kasualidadea!

Tunela luze be luze egiten dauko. Momentu baten, trenak triki-traka gogor bat egiten dauan baten, mutilla Josefiñen gainera jausi da.

-Perdone, señora -diño mutillak, baño emakumeak ezer erantzun barik, sarkatu egiten deutso bere lekuan ondo jarri daiten derrigortuz.

Leiotik argi pizka bat ikusterakoan biotza be zabaldu egiten jako. Sasoa izan da tuneletik urteterako -Josefiñek bere artean pentsatzen dau.





Artega dago Josefin. Leiotik begira dago, baña ez dau ezer ikusten. Mutilla kontrolatzera dago geiago. Ospitalera eltzeko askorik ez dala faltako pentsatzen dau, ordu laurden bat edo, asko botata. Amaikak edo izango dira bere barrurako esan eta erlojua begira doa Josefin.

-Erlouja! Non dago nire erlouja! -Ez eskumako ez ezkerreko ezkumuturrari ez daroa bere urrezko erlouja!

-lñakik zidarrezko ezteguak egin genduzan egunean oparitutako erlouja! -zoratu bearrean dago emakumea.

Mutilla isil-isilik dago berari begira. Orduan, Josefiñek, bat-batean, jesarleku azpian dagoan boltsatik puntua egiteko orrotz luzea atara eta saietsetan mutillari sartuz diñotso:

-Dame el reloj o te clavo esto hasta dentro.

- Señora, ¿que me está diciendo?

- Que me des el reloj o te meto esto hasta dentro -Josefiñek gero eta indar geiagoz orratza sartuz.

- Señora, sabe lo que le digo? Que esta usted como una cabra. Tome el reloj y déjeme en paz, delincuente!

Orduan mutillak ezkutturretik erlouja kendu eta Josefiñeri emon deuto. Ondoren, bere jesarlekutik altxatu eta abiada bizian beste bagoi batera doa.

- Delincuente, delincuente diñost gañera berak -Josefiñek minduta. Berak neuri lapurtu eta gañera ori entzun bear.

Eldu da eldu Josefin. Tren geltokitik ospitalerako bidean buruari bueltak eta bueltak emoten dabil. Ziur dago trenean bere gañera etorri jakonean orduan kendu deuto bere urrezko erlouja. Mutillak emondakoa ez da urrezkoa. Ezta gitxiagorik be ez.

- Erlouju digital iñuzente bat baño ez bada! -bere barrurako Josefiñek.- Nirea ezin izan dot berreskuratu, baña ezer barik gelditzekotan obeto berak. Gure lñakiri kontatzen deuto sadanean gertatutakoa! Aren haserrea!

Eldu da ospitalera. 235 zenbakia dakar lñaki dagoan gelako atean. Sartu da barrura. An dago lñaki oean etzunda eta lzaskun, alabea, bere ondoan.

- Egunon! Zelan igaro dozue gaua? -Josefiñek bere larritasuna agertu ez naian.

- Pentsa doguna baño obeto -lzaskunek.

- Goizetik etorri zara ba! -lñakik.

- Goizetik? Esan neutsuen hamar eta erdietako trena artuko nebala. Gañera, ez dakizue zer gertatu jatan trenean. Benetan hau konta bearrekoa da.

- Ama, parkatu baña ni oin prisaz nabil eta ez daukat berbetan egoteko astirik. A! aztu orduko, ama, -diñotso lzaskunekutzi erlouja. Atzo, eskuak garbitzera joan ziñenean, komunean, konketa gañean, itzi zenduan. Kontuz ibilli bear zara, emendik jende asko dabil eta.

